| | |
|---|---|
| **ETORKINEN HARRERA ETA INTEGRAZIOKO ZUZENDARIAREN EBAZPENA, ZEINAREN BIDEZ HERRITARREI AURRETIKO KONTSULTA PUBLIKOA EGITEN BAITZAIE EUSKADIN ERREFUXIATUEN, NAZIOARTEKO BABESAREN ESKATZAILEEN ETA NAZIOARTEKO BABESERAKO SISTEMAREN BESTE ONURADUN BATZUEN AUTONOMIARAKO LAGUNTZA ARAUTZEN DUEN DEKRETUA (ZUZTARTU PROGRAMA) PRESTATZEARI BURUZ** | **RESOLUCIÓN DEL DIRECTOR DE ACOGIDA E INTEGRACIÓN DE LAS PERSONAS INMIGRANTES POR LA QUE SE SOMETE A CONSULTA PÚBLICA PREVIA A LA CIUDADANÍA LA ELABORACIÓN DEL DECRETO POR EL QUE SE REGULA EL APOYO A LA AUTONOMÍA DE LAS PERSONAS REFUGIADAS, SOLICITANTES DE PROTECCIÓN INTERNACIONAL Y OTRAS PERSONAS DESTINATARIAS DEL SISTEMA DE PROTECCIÓN INTERNACIONAL EN EUSKADI (PROGRAMA ZUZTARTU)** |

| | |
|---|---|
| Etorkinen Harrera eta Integrazioko Zuzendaritzak beharrezkotzat jotzen du Euskadin errefuxiatuen, nazioarteko babesaren eskatzaileen eta nazioarteko babeserako sistemaren beste onuradun batzuen autonomiarako laguntza arautzen duen dekretua (Zuztartu Programa) egitea. | La Dirección de Acogida e Integración considera necesaria la elaboración de un Decreto por el que se regula el apoyo a la autonomía de las personas refugiadas, solicitantes de protección internacional y otras personas destinatarias del sistema de protección internacional en Euskadi (Programa Zuztartu). |

| | |
|---|---|
| Prestatu beharreko dekretuaren xedea da errefuxiatuei, nazioarteko babesaren eskatzaileei eta nazioarteko babeserako sistemaren gainerako onuradunei zuzendutako autonomiarako laguntzaren euskal eredua arautzea, eta, horretarako, estatuko harrera sisteman aurreikusitako neurriak amaitu edo agortu ondoren haien gizarteratze prozesuen jarraitutasuna bermatzea. Era berean, autonomia pertsonala, komunitate partaidetza eta gizarte babeseko sistema arruntetarako benetako sarbidea sustatzeko gizarte laguntzako, orientazioko, koordinazioko eta babeseko jarduketak arautu nahi ditu, baita prestazioak, jarduteko printzipioak, sarbide mekanismoak eta erakundeen arteko koordinazioa ere. | El objeto del decreto, que se considera necesario elaborar, es regular un modelo vasco de apoyo a la autonomía dirigido a personas refugiadas, solicitantes de protección internacional y demás personas destinatarias del sistema de protección internacional, garantizando la continuidad de sus procesos de inclusión social una vez finalizadas o agotadas las medidas de acogida previstas en el sistema estatal. Asimismo, pretende definir las prestaciones, principios de actuación, mecanismos de acceso, coordinación institucional y actuaciones de acompañamiento social orientadas a favorecer la autonomía personal, la participación comunitaria y el acceso efectivo a los sistemas ordinarios de protección social. |

| | |
|---|---|
| Ekainaren 30eko 6/2022 Legearen, xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzkoaren, 11. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen organo edo zuzendaritza zentroak, arau testu juridikoaren proposamena idatzi aurretik, gizartearen iritzia jasoko du aurretiazko kontsulta publikoaren bidez.<br>Aurretiazko kontsulta publikoaren izapidea Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoaren iragarki taulan argitaratutako iragarkiaren bidez egingo da.<br>Aurretiazko kontsulta publikoaren iragarkiak herritarrak gonbidatuko ditu honako alderdi hauen inguruan iritzia ematera:<br>a) Araua onestearen premia eta egokitasuna.<br>b) Arauaren helburuak.<br>c) Konpondu nahi dituen arazoak.<br>d) Erregulazio mailako eta erregulazioz kanpoko beste aukera posibleak. | De conformidad con lo dispuesto por el artículo 11 de la Ley 6/2022, del 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, el órgano o centro directivo promotor de la tramitación de la disposición de carácter general recabará en consulta pública previa y, con carácter previo a la redacción de la propuesta de texto jurídico normativo, la opinión de la sociedad.<br>El trámite de consulta pública previa se realizará mediante el anuncio en el tablón de anuncios de la sede de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi.<br>El anuncio de consulta pública previa invitará a la ciudadanía a que se pronuncie acerca de los siguientes aspectos:<br>a) La necesidad y oportunidad de aprobar la norma.<br>b) Los objetivos de la norma.<br>c) Los problemas que pretende solucionar.<br>d) Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias. |

| | |
|---|---|
| 2024ko urriaren 29ko 320/2024 Dekretuaren 9.e) artikuluak, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak, emandako eskumenez baliatuz, | En virtud de las competencias atribuidas por el 9.e) del Decreto 320/2024, de 29 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Bienestar, Juventud y Reto Demográfico, |

| | |
|---|---|
| **EBAZTEN DUT**<br><br>Herritarrak gonbidatzea, ebazpen hau Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoaren iragarki taulan argitaratu eta hurrengo egunetik hasita 15 eguneko epean, ebazpen honen eranskinean jasotako informazioari buruz beren iritzia ematera. | **RESUELVO**<br><br>Invitar a la ciudadanía a que, durante el plazo de 15 días, a contar desde el día siguiente al de la publicación de esta resolución en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, se pronuncie acerca de la información contenida en el anexo de esta resolución. |

Vitoria-Gasteizen, sinaduraren datan

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

**Ignacio Fariña Sarasqueta**

DIRECTOR DE ACOGIDA E INTEGRACIÓN DE LAS PERSONAS INMIGRANTES

ETORKINEN HARRERA ETA INTEGRAZIOKO ZUZENDARIA

IGNACIO FARIÑA SARASQUETA - 30611718Y

Firmado digitalmente por IGNACIO FARIÑA SARASQUETA - 30611718Y
Fecha: 2026.09.07 12:31:26 +02'00'

| ERANSKINA | ANEXO |
|---|---|
| **1.- Araua onestearen premia eta egokitasuna.**<br><br>Euskadiko Autonomia Erkidegoak politika publikoak garatzen ari da errefuxiatuak, nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonak eta nazioarteko babesaren onuradunak hartzeko, gizarteratzeko eta integratzeko. Hala ere, ikusi da beharrezkoa dela arau-esparru espezifiko bat izatea, Estatuko harrera-sisteman garatutako jarduketak amaitu ondoren ere inklusio- eta autonomia-prozesuen jarraipena bermatzeko.<br><br>Dekretua onartzeak autonomiarako laguntza-eredu egonkor bat definitzea ahalbidetuko du, komunitate-esku-hartzean, arreta pertsonalizatuan eta administrazio publikoen, gizarte-erakundeen eta lurraldeko baliabideen arteko koordinazioan oinarritua. Era berean, Euskal Gizarte Zerbitzuen Sistemaren eta nazioarteko babesaren Estatuko sistemaren arteko osagarritasuna indartzen lagunduko du, eta hartzaile diren pertsonek gizarte-babeseko baliabide arruntetara benetan iristea erraztuko du.<br><br>Pertsona errefuxiatuen laguntzan eta inklusioan esperientzia egiaztatua duten gizarte-erakundeak egoteak, eta erakunde horiekin lankidetza-mekanismo egonkorrak artikulatzeko beharrak, agerian uzten du komenigarria dela ereduari berezko esparru juridiko bat ematea, garatutako jarduketei segurtasuna, jarraitutasuna eta eraginkortasuna emateko. | **1. Necesidad y oportunidad de aprobar la norma.**<br><br>La Comunidad Autónoma de Euskadi viene desarrollando políticas públicas dirigidas a la acogida, inclusión e integración de las personas refugiadas y solicitantes de protección internacional. Sin embargo, se ha identificado la necesidad de disponer de un marco normativo específico que garantice la continuidad de los procesos de inclusión y autonomía una vez finalizadas las actuaciones desarrolladas en el sistema estatal de acogida.<br><br>La aprobación del decreto permitirá definir un modelo estable de acompañamiento a la autonomía, basado en la intervención comunitaria, la atención personalizada y la coordinación entre administraciones públicas, entidades sociales y recursos del territorio. Asimismo, contribuirá a reforzar la complementariedad entre el Sistema Vasco de Servicios Sociales y el sistema estatal de protección internacional, favoreciendo el acceso efectivo de las personas destinatarias a los recursos ordinarios de protección social.<br><br>La existencia de entidades sociales con experiencia acreditada en el acompañamiento e inclusión de personas refugiadas, así como la necesidad de articular mecanismos estables de colaboración con dichas entidades, pone de manifiesto la conveniencia de dotar al modelo de un marco jurídico propio que aporte seguridad, continuidad y eficacia a las actuaciones desarrolladas. |

| | |
|---|---|
| **2.- Arauaren xedeak.**<br><br>Dekretuaren helburuak honako hauek izango dira:<br>• Errefuxiatuen, nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonen eta nazioarteko babesaren | **2.- Objetivos de la norma.**<br><br>El decreto tendrá como objetivos:<br>• Regular el modelo vasco de apoyo a la autonomía de las personas refugiadas, solicitantes de protección internacional y otras |

| | |
|---|---|
| sistemaren beste pertsona hartzaile batzuen autonomiarako euskal laguntza-eredua arautzea.<br>• Inklusio- eta autonomia-ibilbide indibidualizatuen jarraitutasuna bermatzea.<br>• Autonomia pertsonala eta gizarteratzea sustatzeko beharrezkoak diren gizarte-laguntzako, orientazioko, koordinazioko eta laguntzako prestazio teknikoak ezartzea.<br>• Gizarte-babeseko sistema arruntetara, enplegura, etxebizitzara, hezkuntzara, osasunera eta komunitateko gainerako baliabideetara benetako sarbidea erraztea.<br>• Erakundeen arteko koordinazioa eta komunitate-lana esku-hartzearen funtsezko elementu gisa indartzea.<br>• Genero-berdintasunaren, kulturen arteko bizikidetzaren, diskriminaziorik ezaren eta pertsona hartzaileen parte-hartzearen ikuspegiak zeharka txertatzea. | personas destinatarias del sistema de protección internacional.<br>• Garantizar la continuidad de los itinerarios individualizados de inclusión y autonomía.<br>• Establecer las prestaciones técnicas de acompañamiento social, orientación, coordinación y apoyo necesarias para favorecer la autonomía personal y la inclusión social.<br>• Favorecer el acceso efectivo a los sistemas ordinarios de protección social, empleo, vivienda, educación, salud y demás recursos comunitarios.<br>• Reforzar la coordinación interinstitucional y el trabajo comunitario como elementos esenciales de la intervención.<br>• Incorporar de forma transversal las perspectivas de igualdad de género, interculturalidad, no discriminación y participación de las personas destinatarias. |

| | |
|---|---|
| **3.- Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.**<br><br>Ekimenaren helburua da errefuxiatuek eta nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonek bizitza autonomorako trantsizio-prozesuetan aurki ditzaketen zailtasunei erantzutea, bereziki Estatuko harrera-sisteman aurreikusitako harrera-neurriak amaitzen direnean.<br><br>Era berean, babesgabetasun-egoerak, arretan etenak edo gizarte-babeseko baliabide arruntetara iristeko zailtasunak saihestu nahi ditu, gizarte-laguntza espezializatua eta sistema publiko desberdinen nahiz komunitateko eragileen arteko koordinazioa indartuz.<br><br>Bestalde, Euskadin garatzen diren autonomiarako laguntza-esku-hartzeei jarduteko esparru homogeneo bat | **3.- Los problemas que pretende solucionar la iniciativa.**<br><br>La iniciativa pretende dar respuesta a las dificultades que pueden encontrar las personas refugiadas y solicitantes de protección internacional en sus procesos de transición hacia una vida autónoma, especialmente cuando finalizan las medidas de acogida previstas en el sistema estatal.<br><br>Asimismo, busca evitar situaciones de desprotección, discontinuidad en la atención o dificultades de acceso a los recursos ordinarios de protección social, reforzando el acompañamiento social especializado y la coordinación entre los diferentes sistemas públicos y agentes comunitarios.<br><br>Por otra parte, pretende dotar de un |

| | |
|---|---|
| ematea du xede, hartzaile diren pertsonen beharretara egokitutako arreta koherenteagoa eta koordinatuagoa bermatuz. | marco homogéneo de actuación a las intervenciones de apoyo a la autonomía desarrolladas en Euskadi, garantizando una atención más coherente, coordinada y adaptada a las necesidades de las personas destinatarias. |

| | |
|---|---|
| **4.- Bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.**<br><br>Autonomiarako laguntza-jarduketak hainbat programaren, lankidetza-tresnaren eta gizarte-esku-hartzeko ekimenen bidez garatu dira orain arte. Hala ere, jarduketa horiek ez dute eskaintzen esparru juridiko egonkor eta osaturik, hartzaileen gizarteratze-prozesuen jarraitutasuna bermatzeko beharrezkoak diren eskubideak, printzipioak, prestazioak, sarbide-mekanismoak eta koordinazio-bideak modu integralean arautuko dituenik.<br><br>Horregatik, beharrezkotzat jotzen da arau espezifiko bat onartzea, pertsona errefuxiatuen eta nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonen autonomiarako laguntzaren euskal eredua modu sistematikoan ezarriko duena. Ez da ikusten, gainera, arau izaerarik gabeko bestelako alternatibarik, lortu nahi diren helburuak segurtasun juridiko, egonkortasun eta eraginkortasun maila berarekin eskuratzea ahalbidetuko duenik. | 4.- **Otras posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.**<br><br>Se han venido desarrollando actuaciones de apoyo a la autonomía mediante programas, instrumentos de colaboración y distintas iniciativas de intervención social. No obstante, dichas actuaciones no proporcionan un marco jurídico estable y completo que regule de manera integral los derechos, principios, prestaciones, mecanismos de acceso y coordinación necesarios para garantizar la continuidad de los procesos de inclusión social de las personas destinatarias.<br><br>Por ello, se considera necesaria la aprobación de una norma específica que establezca de forma sistemática el modelo vasco de apoyo a la autonomía de las personas refugiadas y solicitantes de protección internacional, sin que se aprecien alternativas no regulatorias que permitan alcanzar con el mismo grado de seguridad jurídica, estabilidad y eficacia los objetivos perseguidos. |